

B. GABONAK

LORENTXOREN SARRERAKO GUTUNA

Kaixo, zelan zabiltzate?

Gabonak hemen ditugula-eta, Euskal Herriko pertsonaia magikoa aurkeztu nahi dizuet. Agian, hemengo mendietan ikusiko zenuten, agian ez, erdi ezkutuan ibiltzen baita. Mendian lan egiten du, antzinako lana: ikatza egiten du. Ez da erraza ikustea, ez pentsa, lotsatia ere bada-eta.

Eta ez baduzue inoiz ikusi, zelan jakingo duzue bera dela? Oraintxe esango dizuet zelakoa den: buruan txapela dauka, bizarduna da eta pipa erretzen du. Gainera, tripa handia dauka, jatea gustatzen zaio-eta. Jantzita, berriz, alkandora zuria, brusa beltza eta prakak ditu, artilezko galtzerdiak eta abarkak. Zelakoa imajinatzen duzue? Nahí baduzue, egin marrazki bat!



B. GABONAK **LORENTXOREN** **SARRERAKO GUTUNA**

Olentzero bihotz-onekoa da, beti dago laguntzeko prest. Milaka gutun jasotzen ditu urtero abenduan. Umeek euren gauzak kontatzen dizkiote; urtean zehar zer egin duten, zelan portatu diren, eta horrelakoak. Ume askok opariak eskatzen dizkiote, eurentzat eta baita ingurukoendako ere.

Opariak abenduaren 24an banatzen ditu, beraz, badakizue, zerbait eskatu edo kontatu nahi badiozue, egun hori baino lehen idatzi behar diozue.

Olentzerok ipuinak ere baditu. Nahi izanez gero, gelan irakur ditzakezue. Munduko beste toki batzuetan beste ohitura batzuk dituzte eta honekin batera bidaltzen dizkizuet hori lantzeko marrazkiak.

Gabon zoriontsuak
eta Urte berri on!

Lorentxo

